Open Government Partnership

OGP LOCAL Euskadi

# Euskadiko Gobernu Irekirako III. Ekintza Plana 2025-2028

**English version:**

**Prozesuan parte hartu dutenak:**

- Bizkaiko emakumeen partaidetzarako kontseilua
- UNICEF Euskadi
- Sareen Sarea
- Eusko Ikaskuntza
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- Mestiza elkartea
- Osoigo
- Arabako Kontzeju Elkartea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

araba foru aldundia álava diputación foral

Bizkaia foru aldundia diputación foral

GIPUZKOA Foru Aldundia · Diputación Foral

Bilbao

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de la Innovación

# Aurkibidea.

**I. ZATIA**
**IKUSPEGI ESTRATEGIKOA** **5**

**1.** Iraupena 6
**2.** Hitzaurrea 8
**3.** Aurkezpen-gutuna 10
**4.** Gobernu Irekiaren erronkak, aukerak eta ikuspegi estrategikoa 12
**5.** Lankidetza eta koordinazioa tokiko Gobernu Irekiaren ikuspegi estrategikoan eta OGP-ren Ekintza Planean 20
**6.** OGP-ren Ekintza-planaren monitorizazioa 27
**7.** Parte hartutako gobernuz kanpoko eragileak 29
**8.** Tokiko Gobernu Irekiaren estrategia osoa edo/eta beste dokumentu garrantzitsu batzuk 30
**9.** Esteka interesgarriak 31

**II. ZATIA**
**KONPROMISOAK** **33**

**1. konpromisoa** 34
HERRITARREN ARAU-ARLOKO EKIMENA GAUZATZEA.
Herri-mailako legegintza-, arau- eta erregelamendu-ekimenen kudeaketa integralaren protokolo-eredua definitzea

**2. konpromisoa** 42
ETORKIZUNA DISEINATZEN AKTIBOKI PARTE HARTZEN DUEN GAZTERIA.
Euskal gazteek jarduera publiko-instituzionalean duten parte-hartzea sustatzeko eta ebaluatzeko esparru metodologiko bat definitzea, "Youth Test"-arekin parekatu daitekeen mekanismo bat txertatuz

**3. konpromisoa** 50
POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA, KONTU-EMATEAK AHALBIDETZEKO.
Kontuak benetan ematera bideratutako politika publikoak ebaluatzeko esparru metodologiko bat definitzea

**4. konpromisoa** 58
HAURRENGAN ETA NERABEENGAN GOBERNU IREKIAREN KULTURA ETA PRAKTIKA SORTZEA.
Gobernu Irekiaren printzipioak sustatzea, bereziki parte-hartzea bultzatuz, Euskadiko Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen esparruan

**III. ZATIA**
**AURREKONTUA** **67**

I. zatia

# Ikuspegi Estrategikoa

1.

# Iraupena

## 1.1.

**Oraingo Administrazioaren Amaiera-Data**

Oraingo administrazioak (Eusko Jaurlaritza) 2028ko apirilaren amaierara arte iraungo du.

## 1.2.

**Ekintza-planaren epearen amaiera-data**

31/12/2028

2.

# Hitzaurrea

2018an, Euskadi aukeratu zuten Gobernu Irekirako Aliantzaren (OGP) tokiko gobernuen programako partaide berrietako bat izateko. Euskal hautagaitza maila anitzekoa eta eragile anitzekoa izan zen, eta Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta hiru hiriburuetako Udalek hartu zuten parte, bai eta gizarte zibilak ere.

Handik aurrera, Euskadik, OGPko kide den aldetik, 2 ekintza-plan diseinatu eta ezarri ditu:

**GOBERNU IREKIAREN EUSKADIRENTZAKO 2018-2020 EKINTZA PLANA**

**1.** Kontuak ematea agintaldiko planen bidez.

**2.** Open data Euskadi eta Linked Open data.

**3.** Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin.

**4.** Open Eskola: herritarrentzat irekitako eskola.

**5.** Integritatearen euskal sistema.

**GOBERNU IREKIAREN EUSKADIRENTZAKO 2021-2024 EKINTZA PLANA**

**1.** COVID 19ren eragina eta Erakundeek hiritarrari zuzentzen dizkioten zerbitzuen egokipena.

**2.** Aurrekontuei buruzko gardentasuneko eta kontu emateko tresna.

**3.** OPEN ESKOLA: Herritarren garapena eta indartzea

**4.** Euskadin Legegintza/araugintza/erregelamendugintza-ekimenak lantzeko proposamenak eta atxikimenduak biltzeko tresna.

**5.** ALTXOR: Adinekoen bizi-proiektuei informazioa, orientazioa, bitartekaritza eta laguntza emateko online zerbitzua eta arreta erdipresentzialeko bulego pilotuak

Euskadik, orain, bere III. Ekintza Plana ezartzeari ekingo dio. Plan horrek 4 konpromiso biltzen ditu, eta aurreko ekintza-planen elementu batzuk mantentzen ditu, hala nola maila anitzeko eta eragile anitzeko baterako sorkuntza eta parte-hartzea, eta beste batzuk indartzen ditu, hala nola plan berri honen bidez garatzen diren metodologiak eta produktuak udal-eremura eramatearen garrantzia, Gobernu Irekiaren potentzial osoa EAEko herritar guztiengana helarazteko.

3.
# Aurkezpen-gutuna

**Open Government Partnership**
Aidan Eyakuze, Zuzendari Exekutiboa

Vitoria-Gasteizen, 2025eko irailean

Eyakuze jaun agurgarria:

Atsegin handiz bidaltzen dizut 2025-2028 aldirako Euskadiko Gobernu Irekirako III. Ekintza Plana.

Euskadi herrialde txikia da, baina nortasun handikoa. 5.000 urtetik gorako historia du, eta kultura berezia eta munduan parekorik ez duen hizkuntza ditu. Euskadi, gaur egun, garai bakoitzera egokitzen jakin duen herrialde modernoa da, eta Europako abangoardian dago garapen ekonomikoari, bizi-kalitateari eta gizarte-kohesioari dagokienez.

Euskadik berezko Legebiltzarra eta Gobernua ditu, hainbat politikatan autonomia handia dutenak, hala nola hezkuntzan, industrian, kulturan, osasunean, segurtasunean eta gizarte-zerbitzuetan. Horien guztien kudeaketari esker, Euskadik giza-garapen jasangarriaren maila handiko indizeak lortu ditu.

Euskadik 3 lurralde historiko ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Bakoitzaren erakunde-arkitektura Foru Aldundiak izeneko organo betearazleetan eta Batzar Nagusiak izeneko ganbera legegileetan oinarritzen da. Erakunde horiek XV. mendean dute jatorria, erakunde demokratikoen forma goiztiar batean.

Euskadik Gobernu Irekiarekin duen konpromisoak ibilbide luzea du, baina, agian, aipagarriena da ibilbide horren zati handi bat lankidetza publiko-pribatu-sozialetik abiatuta eta Open Government Partnership (OGP) ekimenaren eskutik egin dela.

Aldez aurretik bi ekintza-plan (2018-2020 eta 2021-2024) arrakastaz inplementatu izanaren esperientzian oinarrituta, 2025-2028 III. Ekintza Plan hau aurkezten dugu, herritarrekin eta eragileekin batera sortzeko prozesu zabal baten emaitza dena. 800 pertsonak baino gehiagok eta 18 eragilek parte hartu dute Euskadiko OGP Ekintza Plan berria egiten.

III. Ekintza Plan hau Open Government Partnership printzipioen arabera diseinatu da, eta printzipio horiek erabiliko ditugu plana ezartzeko.

Ziur gaude III. Ekintza Plan honek Euskadin Gobernu Irekia garatzen jarraitzen lagunduko duela, administrazio- eta erakunde-maila guztietan eta baita gizarte-eremuan ere. Prest gaude helburu hori munduko beste eskualde eta herrialde batzuekin partekatzeko.

María Ubarretxena Cid
Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua

4.

# Gobernu Irekiaren erronkak, aukerak eta Ikuspegi Estrategikoa

Gobernu Irekia gobernantzaren kultura bat da, eta gardentasuna, osotasuna, kontuak ematea eta alderdi interesdunen parte-hartzea bultzatzen ditu, demokrazia eta hazkunde inklusiboa sustatze aldera.

Gobernu Irekia erakunde bakoitzean sustatzen da (estatuko gobernuak, eskualdeetako gobernuak, tokiko gobernuak), bai eta nazioarteko erakundeen bidez ere, hala nola ELGA eta Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership, OGP).

OGPko kideek gobernu ireki eta garden baten printzipioak defendatzeko konpromisoa hartu behar dute, Gobernu Irekiaren Adierazpena babestuz. Adierazpen hori babestean, gobernuek konpromisoa hartzen dute “gobernu irekiaren kultura global bat sustatzeko, herritarrei kontuak emateko eta herritarrak ahalduntzeko, eta XXI. mendeko gobernu ireki eta parte-hartzailearen idealak bultzatzeko”.

Gobernu Irekia Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan ere presente dago. Gobernu Irekiari buruzko aipamenik argienak 16. GJHrekin (Bakea, Justizia eta Erakunde Sendoak) du zerikusia, eta, zehazki, honako helburu hauekin:

**16.5 helburua:**
Nabarmen murriztea ustelkeria eta eroskeria, bere forma guztietan.

**16.6 helburua:**
Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.

**16.7 helburua:**
Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan.

**16.8 helburua:**
Garapen-bidean dauden herrialdeen parte- hartzea areagotzea eta sendotzea mundu- mailako goberna-mendu-erakundeetan.

Horrela, Gobernu Irekia 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak eratzen dituen elementutzat har daiteke, garapen jasangarriaren hiru ardatz tradizionalei (garapen soziala, garapen ekonomikoa eta ingurumenaren babesa) laugarren ardatz bat, gobernantzari lotutakoa, erantsiz.

OGP Euskadin parte hartzen dugun eragileek ikuspegi horretan oinarrituta bideratu dugu III. Ekintza Plan hau. Zehazki, **Gobernu Irekiaren 2 dimentsio handitan jartzen da arreta:**

## PARTE-HARTZE PUBLIKOA

Erakundeek herritarrak gonbidatu behar dituzte interes sozial handieneko gaiei buruzko eztabaida publikoetan parte hartzera, eta, ahal den neurrian, jasotako ekarpenak txertatzen saiatu behar dute, eta behar bezala arrazoitu behar dute hori ezinezkoa denean. Zehazki, haurren, nerabeen eta gazteen parte-hartzea bultzatu nahi da.

## KONTUAK EMATEA

Gobernuek beren ekintzei buruzko azalpenak eman behar dituzte eta hartzen dituzten erabakien erantzukizuna beren gain hartu behar dute, eta, bereziki, ekintzen inpaktuari, eraginkortasunari eta efizientziari eta hartzen dituzten konpromisoen betetze-mailari buruzko informazioa eman behar dute.

Bi dimentsio sektorial horiez gain, Gobernu Irekiaren III. Plan honek ALIANTZEN kontzeptuan eragin nahi du, 17. GJHak erakusten digunaren ildotik. Aliantzak, beraz, erakunde publikoak eta gizarte zibileko erakundeak herritarrengana hurbiltzeko ezinbestekoak diren aldaketen azeleragailu bihurtzen dira.

Lan horrek, era berean, KALITATE DEMOKRATIKOA azpimarratu beharko du, kontuan hartuta erakundeek gizarte demokratiko baten kalitatean aurrera egiten eta hura sendotzen lagunduko duten mekanismoak indartu behar dituztela, eta, horretarako, hura baliatzeko eta bermatzeko funtsezko piezak indartu behar dituztela, hala nola autogobernu-erakundeak eta herritarren eskubideak eta askatasunak, bai eta herritarrek eskubide horiei buruz dakitena ere.

## 4.1.

**Zein da Gobernu Irekiarentzako epe luzeko ikuspegia, bere testuinguruan eta jurisdikzioan?**

Gobernu Irekirako dugun epe luzeko ikuspegiak funtsezko 3 elementu ditu:

1

**ESKUBIDE**

Lehenik eta behin, Gobernu Irekia, informazio eta datu publikoak eskuratzeko eta erabakiak hartzen parte hartzea ESKUBIDE gisa.

2

**ZEHARKAKO PRINTZIPIO**

Bigarrenik, Gobernu Irekia, kudeaketa publiko osoari eragin behar dion ZEHARKAKO PRINTZIPIO gisa. Ildo horretan, beharrezkoa da erakundeen konpromisoa -eta baita gizarte zibileko beste eragile batzuena ere- izatea Gobernu Ireki errealago eta eraginkorrago batean sakontzeko.

3

**KUDEAKETA-EREMU**

Azkenik, Gobernu Irekiaren elementuak erakundeen antolaketa-kulturan eta kudeaketan (plangintza, gauzatzea, ebaluazioa) erabat txertatuta dauden KUDEAKETA-EREMU gisa, kudeaketa hori modu eraginkorrean eta efizientean garatu ahal izateko.

# 4.2.

**Zer lorpen izan dira orain arte Gobernu Irekiaren arloan (adibidez, berriki egindako erreformak)?**

Euskadin, Gobernu Irekia gardentasunaren, parte-hartzearen eta lankidetzaren aldeko gobernantza onaren konpromiso eta praktika jarraituan gauzatzen da. Gobernantza hori hiru erakunde-mailetan garatzen da, baita gizarte zibileko erakundeetan ere.

Horretarako, urteetan zehar -eta bereziki OGPren ekintza-planetan-, Gobernu Irekiarekin lotutako eragileen eta tresnen ekosistema bat garatu da, hainbat elementu biltzen dituena:

- Arauak garatzea.
- Gardentasunari, herritarren parte-hartzeari, datu irekiei eta kontuak emateari buruzko atariak eta web-plataformak.
- Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko guneak eta organoak (kontseiluak, foroak...).
- Elkarlanerako metodo berriak esperimentatzeko proiektu pilotuak.
- Gaikuntza-ekintzak.
- Egiaztapen eta aintzatespen-sistemak.

Ekosistema horretan datza Gobernu Irekiaren jardunaren indarra Euskadin.

# 4.3.

**Zein erronka edo aukera-arlo hartu nahi ditu aintzat jurisdikzioak gobernu irekiaren arloan?**

III. Ekintza Plan honek 3 helburu handi jorratu nahi ditu:

### HERRITARREN PARTAIDETZAREN ARLOKO HELBURUAK

- Entzute aktiboa hobetzea eta herritarren beharrak eta itxaropenak goiz identifikatzea.
- Parte hartzeko garatzen diren prozesuetan partaidetza handiagoa lortzea.
- Partaidetza-prozesuak eta tresna berritzaileak eta eraginkorragoak diseinatzea, herritarren parte-hartzeari balio erantsia emango diotenak.
- Partaidetza-prozesuak behar bezala ixtea, eta gizarteari prozesu horien emaitzak eta, eztabaidagaiari edo gogoetagaiari dagokionez, parte-hartzeak sortutako inpaktua itzultzea.
- Herritarren parte-hartzea hurbiltzea urrunen egon ohi diren pertsona eta kolektiboei. Zehazki, III. Planak haurren, nerabeen eta gazteen parte-hartzea hobetzeari helduko dio.

### EBALUAZIOAREN ETA KONTUAK EMATEAREN ARLOKO HELBURUAK

- Politika, zerbitzu eta programa publikoen ebaluazioa bultzatuko duen kontzeptu-esparru bat definitzea eta aktibatzea, horiek etengabe hobetzeko eta kontuak emateko oinarri gisa.
- Ebaluazioa eta kontu-ematea bultzatu eta gobernantza aurreratuko sistema baten barruan funtsezko jarduera gisa txertatuko dituen kontzeptu-esparru bat definitzea eta aktibatzea.

### GOBERNU IREKIAREN HEDAPENARI BURUZKO ZEHARKAKO HELBURUAK

- Udalerri txikiagoen errealitatera egokitutako tresnak eskaintzea, Gobernu Irekia errealitate izan dadin administrazio-maila guztietan.
- Administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonak eta beste gizarte-eragile batzuetako pertsonak trebatzea, Gobernu Irekia Euskadin hedatzeko trakzio-elementu gisa jardun dezaten.

Horrez gain, 2. konpromisoak (ETORKIZUNA DISEINATZEN AKTIBOKI PARTE HARTZEN DUTEN GAZTEAK. Euskadiko gazteek jarduera publiko-instituzionalean duten parte-hartzea sustatzeko eta ebaluatzeko esparru metodologiko bat definitzea, "Youth Test"-arekin parekatu daitekeen mekanismo bat txertatuz) azpimarratu nahi du Euskadiko politika publikoen diseinuan gazteriaren ikuspegia sartzearen zeharkakotasuna.

## 4.4.

**Gobernu Irekiaren epe ertaineko zein helburu lortu nahi ditu jaurlaritzak?**

4.3 puntuan adierazitakoak. Helburu horiek guztiek bat egiten dute Euskadin kalitate demokratikoa hobetzen jarraitzeko helburu handi batean.

## 4.5.

**Nola laguntzen du Ekintza Planak Gobernu Irekiaren Ikuspegi Estrategikoa lortzen?**

4 ekarpen-elementu nagusi nabarmendu ditzakegu:

- Planak Gobernu Irekiaren ikuspegi estrategikoari lotutako erronka handiak azpimarratzen ditu, bai erakundeek bai gizarte zibilak partekatzen dituztenak.
- Planak, gizarte zibilaren eskaerak ez ezik, Gobernu Irekiarekin erabat konprometitzeko eta helburu hori bete dadin laguntzen duten erakunde bihurtzeko egina duen konpromisoa ere jasotzen du.
- Arreta berezia jartzen da baliabide eta ezagutza gutxien duten erakundeei laguntzean.
- Lankidetzari balioa eman zaio, zehaztutako 4 konpromisoen zeharkako tresna gisa.

## 4.6.

**Nola laguntzen du Gobernu Irekiaren Ikuspegi Estrategikoak egungo administrazioaren politikaren helburu orokorrak lortzen?**

Lehen esan dugun bezala, ezinezkoa da garapen iraunkorraz hitz egitea, baldin eta garapen hori oinarritzen ez bada sendoak diren eta beren interes-taldeen beharretara eta itxaropenetara orientatzeko eta kudeatzeko gaitasun handia duten erakunde eta eragileetan.

Halaber, erabakiak goitik behera hartzen badira, ezin da garapen iraunkorraz hitz egin. Ezinbestekoa da herritarren eta lurraldeko eragile garrantzitsuen ahotsa izatea, gero eta konplexuagoak eta elkarri lotuagoak diren arazoentzat inpaktu handiko irtenbideak sortzeko eta praktikan jartzeko. Gainera, herritarren eta gizartearen parte-hartzeak adostasunaren eta inplikazioaren balioa ematen du eta parte-hartzea lankidetza bilakatzen du.

Parte-hartze horrekin batera, ezinbestekoa da politika, programa eta zerbitzu publikoen ebaluazio egokia izatea, eta kontuak eraginkortasunez ematea, lortutako eragina eta erabilitako baliabideak erakusteko.

Hori dela eta, Gobernu Irekiak funtsezko parte izan behar du edozein administrazio publikoren politiketan eta edozein eragile sozial edo pribatuenetan, baldin eta beren interes-taldeen beharrei eta igurikimenei erantzun nahi badiete, babes soziala duten eta balio publiko handiena sortzen duten estrategia sendoak izan nahi badituzte, eta beren ekimen eta konpromisoen berri emateko bide eraginkorrak izan nahi badituzte, garatzen dituzten politika, zerbitzu eta programen ebaluazio nahikoa, eraginkorra eta efizientea abiapuntu hartuta.

5.

# Lankidetza eta koordinazioa tokiko Gobernu Irekiaren Ikuspegi Estrategikoan eta OGP-ren Ekintza Planean

## 5.1.

**Zeintzuk dira ogp-ren ekintza-plana ezartzeaz arduratzen diren erakundeak?**

Ekintza Plana ezartzeko azken erantzukizuna Eusko Jaurlaritzari dagokio (Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari).

Ezarritako konpromiso bakoitzak hainbat erakunde publiko eta pribatu ditu konpromisoaren helburu onaren erantzunkide (ikus informazio osoa II. zatian, konpromiso bakoitzaren deskribapenean).

## 5.2.

**Zer erakunde-konponketa mota daude erakundeen eta gobernu-sailen arteko koordinaziorako, ogp-ren ekintza-plana ezartzeko?**

2018an hasi zenetik, OGP Euskadik hainbat foro eta lan-espazio jarri ditu abian, OGPk ezarritako printzipioei jarraiki:

**Talde sustatzailea**

Euskadiren Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzarako hautagaitza sustatu duten erakundeak dira, eta honako konpromiso hauek hartzen dituzte: ekintza-planak egitea, plana diseinatzeko eta gauzatzeko prozesua ezartzea, hura ezartzeko bitartekoak jartzea eta Aliantzaren estandarren araberako ebaluazioa egitea.

**Foro erregularra**

Espazio informal egituratua, partaidetza eta euskal administrazio publikoen eta herritar antolatuen eta ez-antolatuen arteko lankidetza maximizatzeko diseinatua. Elkarrizketarako eta baterako sorkuntzarako espazioak sortzea du helburu, ahotsen aniztasuna bermatuz, ekintza-planak diseinatu, inplementatu eta ebaluatzeko.

OGP LOCAL Euskadi

**Foro irekia**

Bi noranzkoko interakzio etengabean irekitako partaidetza-organoa da, plataforma teknologiko batean eta eztabaidatzeko eta Planaren ezarpena ebaluatzeko aurrez-aurre egiten diren topaketetan oinarritua.

**Konpromisoen araberako lantaldeak**

Ekintza-plana ezartzeko talde eragileak dira. Plan bakoitzak barne hartzen dituen konpromisoen arabera eratzen dira, eta herritarren partaidetza barne hartzen dute.

## 5.3.

**Zer espazio-mota erabili edo sortu dira gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetza sustatzeko ekintza-plana batera sortzeko eta ezartzeko?**

Plana egiteko prozesuak honako fase hauek izan ditu:

**1. fasea**
Gai-lehentasun posibleak eta konpromiso Posibleak identifikatzea

**2. fasea**
Konpromisoak aukeratzea

**3. fasea**
Konpromisoak zehaztea eta ezaugarritzea

**4. fasea**
Plana idaztea

4 faseetan parte hartzeko dinamikak sartu dira. Hona hemen egin diren partaidetza-dinamikak:

- **1. FASEA**
  herritarrei irekitako inkesta + Foro Irekian parte hartzen duten eragileek konpromiso posibleak proposatzeko formularioa.
- **2. FASEA**
  Foro Irekiaren eztabaida-tailerra (apirilaren 29an, Donostian), konpromisoak hautatzeko + Talde Sustatzailearen saioa konpromisoak baliozkotzeko (ekainaren 6an, Vitoria-Gasteizen).
- **3. FASEA**
  konpromiso bakoitzaren lan-saioak bertan parte hartu nahi duten eragileekin (Foro Irekian parte hartzen duten eragileak + gonbidapena jaso duten beste eragile batzuk).
- **4. FASEA**
  Foro Irekiaren lan-saioa, Planaren dokumentu osoa baliozkotzeko (irailaren 17an, Vitoria-Gasteizen).

Herritarrek parte hartzeko prozesuan
**802 pertsonak** hartu dute parte,
honako profil honekin:

| SEXUA | |
|---|---|
| Emakumea | **%53** |
| Gizona | **%46** |
| Beste bat | **%0** |

| ADINA | |
|---|---|
| 18 urte baino gutxiago | **%0** |
| 18-30 urte bitartean | **%3** |
| 31-45 urte bitartean | **%17** |
| 46-64 urte bitartean | **%55** |
| 65 urte edo gehiago | **%24** |

Prozesu hori Irekian (Eusko Jaurlaritzaren herritarren partaidetzarako plataforma) argitaratutako eztabaida ireki baten bidez garatu da. Inkesta telematiko bat egin da, iritziak emateko eta ekarpenak egiteko tresna gisa, eta, gainera, OGP Euskadin parte hartu duten eragileak berriro hedatu dira. Inkesta hau 2025eko martxoaren 10etik 31ra egon da eskuragarri, eta bi zati zituen:

1 Lehenengo zatian, inkesta bete duten pertsonek gobernu irekiaren arloan duten jarrera eta esperientzia aztertuko dira.

2 III. Ekintza Plana idazteko lehentasunak eta proposamenak adieraztea.

Herritarren lehentasunen emaitzek azaldu zutenez, **euskal herritarrek nahiko lehentasunezkotzat edo oso lehentasunezkotzat jotzen dute Gobernu Irekiaren eremu guztiak garatzea.**

| | Lehentasun nahikoa + lehentasun handia |
|---|---|
| • GAI GEHIAGO HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN mende jartzea. | %92 |
| • PERTSONA ETA/EDO AGENTE GEHIAGOK PARTE HAR DEZATEN lortzea. “Partaidetza-kultura” handiagoa sortzea. | %93 |
| • Herritarren PARTE-HARTZE ZUZENA sustatzea (elkarteen bidez egin daitezkeenez gain). | %94 |
| • ZABALKUNDE-TRESNAK indartzea, ni bezalako personek PARTE HARTZEKO BIDEAK ETA AUKERAK EZAGUTU AHAL IZAN DITZAGUN | %95 |
| • EGINDAKO PARTE-HARTZEAREN EMAITZEI BURUZKO KOMUNIKAZIOA indartzea, ni bezalako pertsonek ezagutu ahal izan ditzagun. | %94 |
| • GARDENTASUNA ETA Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea HERRITARRENGANA HURBILTZEA. | %97 |
| • PLAN, PROGRAMA ETA ZERBITZU PUBLIKOETAN KONPROMISO ZEHATZAGOAK ETA KUANTITATIBOAGOAK SAR DAITEZEN sakontzea | %96 |
| • Plan, programa eta zerbitzu publikoetan ezarritako konpromisoak betetzeari buruzko KONTUAK EMATEA sustatzea | %97 |
| • DATU IREKIAK herritarrei hurbiltzea | %96 |
| • Kargu politikoen eta erakunde eta administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonen INTEGRITATEAN ETA JOKABIDE ETIKOAN sakontzea | %98 |
| • GOBERNU IREKIAREKIKO KONPROMISOAN sektore publikoa ez ezik, ENPRESA PRIBATUAK ETA HIRUGARREN SEKTOREA ere barne hartzea (elkarteak, fundazioak) | %89 |

## 5.4.

**Zer neurri hartu ziren gune horietan parte hartzen dutenen aniztasuna ziurtatzeko (talde kalteberak edo marjinatuak barne)?**

Foro Erregularrean eta Foro Irekian talde horiek ordezkatzen dituzten erakundeak daude, eta horrek haien ikuspegia eta premia espezifikoak txertatzea bermatzen du.

## 5.5.

**Nortzuek hartu zuten parte espazio horietan? Aipatu baterako sorkuntzarako prozesuan parte hartu zuten talde-motak**

- Eusko Jaurlaritza.
- Foru Aldundiak.
- Tokiko erakundeak.
- Gizarte-erakundeak.
- Gobernu Irekian eta Gizarte Berrikuntzan adituak diren erakundeak.

## 5.6.

**Zenbat taldek hartu zuten parte gune horietan?**

- Eusko Jaurlaritza.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bilboko Udala.
- Donostiako Udala.
- Vitoria-Gasteizko Udala.
- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea.
- Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia.
- Mestiza Elkartea.
- Bilboko Emakumearen Kontseilua.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.
- Osoigo.
- Sareen Sarea.
- Eusko Ikaskuntza.
- UNICEF Euskadi.

**TOTAL:**
**16 entidades.**

## 5.7.

**Zenbat bilera egin ziren batera sortzeko prozesuaren barruan?**

Honako dinamika hauek egin dira:

01
**Herritarrei irekitako eztabaida 1.**

03
**bilera ireki eragile guztientzat.**

12
**aldebiko bilera eragileekin, inplikazioa zehazteko.**

04
**bilera konpromisoak zehazteko.**

## 5.8.

**Ekintza-plana ezarri bitartean, nola jarraituko dute lankidetzan gobernuko eta gobernuz kanpoko eragileek?**

- Gaur egungo gobernantza-guneak mantenduko dira: Talde Sustatzailea, Foro Erregularra, Foro Irekia eta Konpromisoen Araberako Lantaldeak.
- Eragile berriak gonbidatuko dira Foro Erregularrean parte har dezaten.
- Konpromiso bakoitza abiarazten denean, konpromisoa garatzeko onuragarritzat jotzen diren eragile berriak identifikatuko dira.
- Bitarteko ebaluazioa eta Ekintza Planaren ezarpenaren azken ebaluazioa egingo dira eta eragile guztiek hartuko dute parte horietan.

# 6.
# OGP-ren ekintza-planaren monitorizazioa

## 6.1.

**Deskriba ezazu zein den plan honetarako identifikatu duzun monitorizazio-erakunde independentea**

Proiektuaren azken kanpo-ebaluazioa egingo da.

## 6.2.

**Eman itzazu monitorizazio independenteko erakundearen harremanetarako datuak**

Ez dago erakunde zehatzik, proiektuaren azken kanpo-ebaluazioaz arduratzen den erakundea lizitazio-prozesu ireki baten bidez kontratatuko baita.

## 6.3.

**Zer jarduera-mota ezarri dira eragileekiko konpromisoen inplementazioan egindako aurrerapenak eztabaidatzeko?**

Tarteko ebaluazioa egingo da 2027/03/31n, barnekoa, eta proiektuaren azken ebaluazioa, kanpokoa eta independentea izango da.

Barne-ebaluazioko dinamikak egingo dira Foro Irekiaren bileretan (dinamika bat urteko).

## 6.4.

**Zer mekanismo daude erakunde ezartzaileei beren aurrerapenei buruz galdetzeko?**

Konpromisoak Garatzeko Lantalde bakoitzak aldizkako txosten bat egingo du konpromisoaren inplementazioaren jarraipenari eta lortutako eraginari buruz. Txosten hori Talde sustatzailea eta foro erregularraren bileretan aztertuko da.

## 6.5.

**Nola partekatuko dituzte monitorizazioaren emaitzak publikoarekin?**

Gauzatutako jardueren urteko memoria egingo da.

Memoria horiek, tarteko eta azkeneko ebaluazioekin batera, proiektuaren webgunean argitaratuko dira: www.ogp.euskadi.eus

Gainera, urteko memoriak eta ebaluazio-txostenak sare sozialen bidez zabalduko dira. Dokumentu horiek guztiak komunikazio argiko irizpideei jarraituz egingo dira.

7.

# Parte hartutako gobernuz kanpoko eragileak

- Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia.
- Mestiza elkartea.
- Bilboko Emakumearen Kontseilua.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.
- Osoigo.
- Sareen Sarea.
- Eusko Ikaskuntza.
- UNICEF Euskadi.
- Herritarrak: 802 pertsona, banaka.

8.

# Tokiko gobernu irekiaren estrategia osoa edo/eta beste dokumentu garrantzitsu batzuk

Euskadiko Gobernu Irekirako
I. Ekintza Plana
2018-2020

OGP Euskadi 2018-020
Ekintza Planaren gauzatzearen
ebaluazio partaidetua

Euskadiko Gobernu Irekirako
II. Ekintza Plana
2021-2024

9.

# Esteka interesgarriak

OGP Euskadiren webgunea

Irekia – Eusko Jaurlaritzaren partaidetza-ataria

OGP Euskadi aurkezteko bideoa

Bideoa: Herritarren partaidetza-arloko berrikuntzako iLab-a batera diseinatzen

II. zatia

# Konpromisoak

1. Konpromisoa

# Herritarren arau-arloko ekimena gauzatzea.

Herri-mailako legegintza-, arau- eta erregelamendu-ekimenen kudeaketa integralaren protokolo-eredua definitzea.

# Konpromisoaren izenburua

**1. Herritarren arau-arloko ekimena gauzatzea.**

Herri-mailako legegintza-, arau- eta erregelamendu-ekimenen kudeaketa integralaren protokolo-eredua definitzea.

# Epeak

**Konpromisoaren hasierako data:**

2025eko iraila

**Konpromisoaren amaierako data:**

2028ko abendua

# Gobernu-erakunde ezartzaileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritza - Gobernu Irekiaren eta Gobernu Zuzendaritza** | Koordinatzailea |
| **Eusko Legebiltzarra** | Parte-hartzailea |
| **Arabako Foru Aldundia** | Parte-hartzailea |
| **Gipuzkoako Foru Aldundia** | Parte-hartzailea |
| **Bilboko Udala** | Parte-hartzailea |

# Konpromisoaren ezarpenean inplikatutako gobernuz kanpoko eragileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **Gizarte-erakundeak** | Eredua zehaztea |
| **EUDEL** | Baliozkotzea eta zabaltzea |
| **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)** | Administrazio publikoentzako prestakuntza |
| **Unibertsitateak** | Gizarte-erakundeentzako prestakuntza |
| **Osoigo** | Parte-hartzean aditua |

## Konpondu beharreko arazoa

Euskadin, legegintzako herri-ekimena demokrazia zuzeneko mekanismo bat da, herritarrei aukera ematen diena legeak proposatzeko Eusko Legebiltzarrean eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietan. Udaletan arauzko herri-ekimenak aurkezteko aukera ere badago.

Legegintzako herri-ekimena arautzen duen ekainaren 30eko 10/2016 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 27.4 artikuluan aurreikusitako legegintzako herri-ekimenaren erabilera arautzen du. Kasu horretan, legegintzako herri-ekimena gauzatzeko, gutxienez 10.000 herritarrek sinatutako lege-proposamenak aurkezten zaizkio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari. Antzeko arauak daude foru- eta udal-mailan ere, eta gai honi buruzko aipamenak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean (78. artikulua).

Araudi erregulatzaile hori badago ere, aplikazio praktikoa lortzeko, herritarren eskubide hori benetan erabiltzen dela bermatzeko, prozesuan zehar sor daitezkeen gaiak konponduko dituzten elementu praktikoak garatu behar dira, hala nola:

- Prozeduraren definizio zehatza.
- Prozeduraren faseetan aplikatu beharreko irizpide komunak ezartzea.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da herritarrei eta gizarte-erakundeei eskubide horri buruzko informazio nahikoa emateko tresnak martxan jartzea.

## Oraingo egoera

Konpondu beharreko arazoari buruzko adostasun orokorra dago, eta hori komuna da konpromisoa sustatzen duten erakundeentzat.

# Garatu beharreko ekintza

Konpromisoa ezartzeak aukera emango du herritarren arau-ekimena bideragarriago egiteko.

**Azken produktu hauek (outputak) lortzea espero da:**

- Arau-arloko herritarren ekimenen kudeaketari buruzko esparru estrategiko komuna lantzea.
- Esparru estrategikoa garatzeko ereduzko metodologiak lantzea:
  · Herritarrei eta gizarte-eragileei informazioa emateko gida.
  · Herri-ekimenen barne-kudeaketarako gida.
- Garatutako ereduzko metodologiak EAEko administrazio publikoetan eta gizarte-erakundeetan zabaltzea.
- EAEko administrazio publikoetako teknikariak eta politikariak metodologietan trebatzea, tokiko errealitate bakoitzera egokitzeko eta horietan erabiltzeko.
- Gizarte-erakundeak trebatzea ekimen-mota horiek bultzatzeko.

Lan horrek guztiak barne hartuko ditu gizarte-erakundeen parte-hartzea eta erakundeen zerbitzu juridikoen baliozkotzea, bermatzeko, alde batetik, prozedurek benetan errazten dutela herritarren arau-ekimenak garatzea, eta, bestetik, prozesuak gai horrek dakartzan legezko eskakizun guztiak betez garatzen direla.

# Nola lagunduko duen konpromisoak arazo publikoa konpontzen

- Aurreko puntuan aipatutako azken produktuak (outputs) garatuz.
- Azken produktuak eskura jarriz aplikatu eta pertsonalizatzeko.
- Ekimen horiek kudeatzeaz arduratzen diren pertsonak eta horiek bultza ditzaketen eragileak gaituz.

## Konpromiso honekin lotzen den epe luzeko helburua, konpromiso honen xede den gobernu irekiaren ikuspegi estrategikoan identifikatua

- **Arau-arloko herritarren ekimena GAUZATZEN DEN ESKUBIDE gisa.**
- **Arau-arloko herritarren ekimena erakundeen antolamendu-kulturan eta kudeaketan erabat txertatuta dagoen KUDEAKETA-EREMU gisa,** kudeaketa hori modu eraginkor eta efizientean garatzeko.

## Politika-arlo nagusia

**Parte-hartzea.**

## Sektore nagusia

**Erakundeak.**

## Ogpren zer baliotarako den garrantzitsua konpromiso hau

**Herritarren partaidetzaren sustapena.**

**Berrikuntza.**

**Lankidetza.**

## Konpromiso hau ezartzeko behar diren baliabideak

**AURREKONTUA**
Beharrezko aurrekontu-esleipena eta moneta

60.000 €

(zuzeneko gastuak bakarrik sartzen dira)

**PERTSONALA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren pertsonen kopurua

Proiektuaren garapenean lagunduko duten

12 pertsona

inguruen arduraldi partziala beharko da.

**DENBORA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren hilabeteen kopurua

38 hilabete

**BEHAR DIREN BESTELAKO BALIABIDEAK**
Mesedez, zehaztu

E/A

## Ba al daude konpromiso hori ezartzeko behar diren baliabideak?

**Bai.**

## Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak

- Garatutako gida-kopurua.
- Metodologia diseinatzen aritzen diren gizarte zibileko pertsona/erakunde-kopurua.
- Garatutako irtenbideari dagokionez, herritarren erakundeek duten gogobetetze-maila.
- Ereduzko metodologiak aurkezteko egindako ekitaldi-kopurua (administrazioei zuzendutako ekitaldiak)
- Ereduzko metodologiak aurkezteko egindako ekitaldi-kopurua (gizarte-erakundeei eta herritarrei zuzendutako ekitaldiak).
- Egindako ikastaro-kopurua (motak).
- Ereduzko metodologietan prestatutako pertsona-kopurua (Administrazioetako langileak).
- Ereduzko metodologietan prestatutako pertsona-kopurua (gizarte-erakundeak eta herritarrak).
- Prestakuntzarekiko gogobetetze-maila.

# Mugarriak

## Mugarria: 1

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Konpromiso-taldearen azken eraketa, autonomia-, foru- eta toki-administrazioek eta herritar antolatuek eta ez-antolatuek parte hartuz.

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko urria

## Mugarria: 2

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Laguntza teknikoa kontratatzea konpromisoaren garapenari euskarria emateko.

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko abendua

## Mugarria: 3

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
EAEko administrazio publikoetako arau-arloko herritarren ekimenen kudeaketari buruzko diagnostikoa egitea. Beste lurralde batzuetako jardunbide egokiak identifikatzea. Beharrak eta aukerak definitzea (herritarren erakundeen parte-hartzea barne).

**HASIERA-DATA:**
2026ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2026ko apirila

## Mugarria: 4

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Arau-arloko herritarren ekimenen kudeaketari buruzko esparru estrategiko komuna lantzea (herritarren erakundeen parte-hartzea + erakundeen zerbitzu juridikoen baliozkotzea barne)

**HASIERA-DATA:**
2026ko maiatza

**ITXIERA-DATA:**
2026ko iraila

## Mugarria: 5

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Ereduzko metodologiak egitea esparru estrategikoa garatzeko:

- Herritarrei eta gizarte-eragileei informazioa emateko gida.
- Herri-ekimenen barne-kudeaketarako gida (erakundeen zerbitzu juridikoen baliozkotzea barne).

**HASIERA-DATA:**
2026ko urria

**ITXIERA-DATA:**
2027ko maiatza

## Mugarria: 6

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Garatu diren ereduzko metodologiak aplikatzeko prestakuntza-programa bat diseinatzea.

**HASIERA-DATA:**
2027ko ekaina

**ITXIERA-DATA:**
2027ko iraila

## Mugarria: 7

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Ereduzko metodologiak EAEko administrazio publikoetan zabaltzea.

**HASIERA-DATA:**
2027ko urria

**ITXIERA-DATA:**
2027ko abendua

## Mugarria: 8

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
EAEko administrazio publikoetako teknikariak eta politikariak metodologietan trebatzea, tokiko errealitate bakoitzera egokitzeko eta horietan erabiltzeko + gizarte-erakundeak trebatzea.

**HASIERA-DATA:**
2027ko azaroa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko urria

## Mugarria: 9

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Ebaluazio partaidetua.

**HASIERA-DATA:**
2028ko azaroa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko abendua

2. Konpromisoa

# Etorkizuna diseinatzen aktiboki parte hartzen duen gazteria.

Euskal gazteek jarduera publiko-instituzionalean duten parte-hartzea sustatzeko eta ebaluatzeko esparru metodologiko bat definitzea, “Youth Test“-arekin parekatu daitekeen mekanismo bat txertatuz.

# Konpromisoaren izenburua

**2. Etorkizuna diseinatzen aktiboki parte hartzen duen gazteria.**

Euskal gazteek jarduera publiko-instituzionalean duten parte-hartzea sustatzeko eta ebaluatzeko esparru metodologiko bat definitzea, "Youth Test"-arekin parekatu daitekeen mekanismo bat txertatuz.

# Epeak

**Konpromisoaren hasierako data:**

2025eko iraila

**Konpromisoaren amaierako data:**

2028ko abendua

# Gobernu-erakunde ezartzaileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritza - Gazteria Zuzendaritza** | Proiektu pilotuen koliderra eta bultzatzailea |
| **Eusko Jaurlaritza - Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren** | Parte-hartzailea |
| **Bilboko Udala** | Parte-hartzailea + proiektu pilotuen bultzatzailea |

# Konpromisoaren ezarpenean inplikatutako gobernuz kanpoko eragileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **EGK - Euskadiko Gazteriaren Kontseilua** | Koordinatzailea |
| **Unibertsitateak** | Gazte-politikekin lotutako ikerketa |
| **UNICEF Euskadi** | Haurtzaroko politiketan aditua |
| **Sareen Sarea** | Gizarte eskubideen sustapenean aditua |

## Konpondu beharreko arazoa

Euskadik 2/2022 Legea du, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena. Lege horren xedea da gazte-politika garatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko gazte guztien eskubideak aitortzeko arau- eta eskumen-esparrua antolatzea. Honako hau da 2/2022 Legearen helburua:

- Gazteen eskubideak bermatzea, haien izaera edo kondizioa edozein dela ere, eta eskubide horien benetako erabilera babestea eta erraztea.
- Gazteek Euskal gizartearen garapen politiko, sozial, kultural eta ekonomiko iraunkorrean parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea.
- Gazteen autonomia eta emantzipazioa ahalbidetuko duten baldintzak sortzea, beren bizi-proiektu indibidual eta kolektiboa eraikitzeko, autonomia eta partaidetza gero eta handiagoa lortzeko haurtzaroan hasi behar den prozesuaren amaiera gisa.

Hala ere, EAEko gazteen parte-hartzearen egungo errealitatea nahiko urrun dago 2/2022 Legeak ezartzen dituen helburuetatik. Administrazio publikoak ez dira beti gai gazteengana behar bezala hurbiltzeko, parte hartzeko eskubidea baliatu dezaten. Partaidetza hori ezinbestekoa da ziurtatzeko politika publikoek etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartzen dituztela eta belaunaldien arteko justizia-mekanismo nahikoak dituztela.

Aldi berean, Europar Batasuna eta Europako beste herrialde eta eskualde batzuk (Austria, Alemania, Gales) “Youth Test” ezartzen ari dira. “Youth Test” edo “kontrol gaztea” proposamen politiko berriek gazteengan duten eragina ebaluatzeko metodo bat da, eta gazteen beharrak eta itxaropenak erabakiak hartzeko prozesuan kontuan hartzen direla ziurtatzen du. Horrek esan nahi du gazteei kontsulta egin behar zaiela, politiken eragina ebaluatu behar dela eta neurriak hartu behar direla izan litezkeen ondorio negatiboak arintzeko, etorkizuneko belaunaldientzat politika eraginkorragoak, iraunkorragoak eta inklusiboagoak lortzen saiatzeko.

Mekanismo horrek, gazteen parte-hartzea bultzatzeaz gain, politika publikoen prestaketan gazteen ikuspegia zeharkako bihurtzea ahalbidetzen du, honako elementu hauek barne hartuta:

- Garrantziaren azterketa.
- Partaidetza esanguratsua.
- Aurretiko inpaktu-ebaluazioa (zaurgarritasun-egoeran dauden gazteen ikuspegia barne).
- Arintzea (gerta daitezkeen inpaktu negatiboak arintzeko ekintzak).
- Gardentasuna. “Youth Test”-aren emaitzak argitaratzea (mekanismoak izan duen inpaktua barne).

## Oraingo egoera

Konpondu beharreko arazoari buruzko adostasun orokorra dago, eta hori komuna da konpromisoa sustatzen duten erakundeentzat.

## Garatu beharreko ekintza

Konpromisoa gauzatzeak honako hauek ahalbidetuko ditu:

- EAEko gazteen parte-hartzea handitzeko behar diren gakoak identifikatzea.
- Euskadiko errealitateari aplikatzeko moduko “Youth Test”-eko metodologia bat garatu eta probatzea.

**Azken produktu hauek (outputak) lortzea espero da:**

- EAEko gazteen parte-hartzea bultzatzeko eta ebaluatzeko esparru metodologikoa (tresnak, irizpideak, adierazleak…).
- Euskadiko politika publikoen diseinuan sartzeko esparru metodologikoa.
- Esparru metodologikoa garatzeko ereduzko metodologiak sortzea.
- Garatu diren ereduzko metodologiak zabaltzea EAEko administrazio publikoetan eta gazteak ordezkatzen dituzten erakundeetan.
- EAEko administrazio publikoetako teknikariei eta politikariei metodologiei buruzko prestakuntza ematea, tokiko errealitate bakoitzera egokitzeko eta horietan erabiltzeko.

Lan horretan, EAEko gazteak ordezkatzen dituzten erakundeek parte hartuko dute (EGKn sartuta daude), bai eta zuzenean parte hartzeko beste mekanismo batzuek ere, hala nola Gazte Panelak.

## Nola lagunduko duen konpromisoak arazo publikoa konpontzen

- Aurreko puntuan aipatutako azken produktuak (outputs) garatuz.
- Azken produktuak eskura jarriz, aplikatu eta pertsonalizatzeko.
- Garatutako tresnak, “Youth Test”-a bereziki, bultzatzeaz arduratzen diren pertsonak gaituz.

## Konpromiso honekin lotzen den epe luzeko helburua, konpromiso honen xede den gobernu irekiaren ikuspegi estrategikoan identifikatua

- **Gazteen parte-hartzea GAUZATZEN DEN ESKUBIDE gisa.**
- **Gazteria-ikuspegiaren zeharkakotasuna, administrazio publikoen BEHAR ESTRATEGIKO gisa.**
- **Gazteria-ikuspegiaren zeharkakotasuna erakundeen antolamendu-kulturan eta kudeaketan erabat txertatuta dagoen KUDEAKETA-EREMU gisa,** kudeaketa hori modu eraginkor eta efizientean garatzeko.

## Politika-arlo nagusia

- **Partaidetza.**
- **Gazteria-politikak**

## Sektore nagusia

**Erakundeak**

## Ogpren zer baliotarako den garrantzitsua konpromiso hau

**Herritarren partaidetzaren sustapena.**

**Berrikuntza.**

**Lankidetza.**

## Konpromiso hau ezartzeko behar diren baliabideak

**AURREKONTUA**
Beharrezko aurrekontu-esleipena eta moneta

75.000 €

(zuzeneko gastuak bakarrik sartzen dira)

**PERTSONALA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren pertsonen kopurua

Proiektuaren garapenean lagunduko duten

8 pertsona

inguruen arduraldi partziala beharko da.

**DENBORA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren hilabeteen kopurua

38 hilabete

**BEHAR DIREN BESTELAKO BALIABIDEAK**
Mesedez, zehaztu

E/A

## Ba al daude konpromiso hori ezartzeko behar diren baliabideak?

**Bai.**

## Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak

- Metodologia diseinatzen aritzen diren erakunde/gazte-kopurua.
- Garatutako irtenbideari dagokionez, gazte-erakundeek duten gogobetetze-maila.
- Garatutako pilotu-kopurua.
- Pilotuetan parte hartutako gazte-kopurua.
- Ereduzko metodologiak aurkezteko egindako ekitaldi-kopurua (administrazioei zuzendutako ekitaldiak)
- Ereduzko metodologiak aurkezteko egindako ekitaldi-kopurua (gazte-erakundeei eta gazteei zuzendutako ekitaldiak).
- Egindako ikastaro-kopurua (motak).
- Ereduzko metodologietan prestatutako pertsona-kopurua (administrazioetako langileak).
- Ereduzko metodologietan prestatutako pertsona-kopurua (gazte-erakundeak eta gazteak).
- Prestakuntzarekiko gogobetetze-maila.

# Mugarriak

## Mugarria: 1

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Konpromiso-taldearen azken eraketa, autonomia-, foru- eta toki-administrazioek eta herritar antolatuek eta ez-antolatuek parte hartuz

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko urria

## Mugarria: 2

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Laguntza teknikoa kontratatzea konpromisoaren garapenari euskarria emateko.

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko abendua

## Mugarria: 3

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Partaidetza bidezko diagnostiko bat egitea (gazteek politika publikoetan parte hartzeko gaur egungo mekanismoak mapeatzea) + Gazteriari buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen eta Gazte Planen azterketa, bai gazteriaren arloan eskumena duen zuzendaritzarenak, bai Foru Aldundienak,
Gobernu Irekiaren ikuspegitik.

**HASIERA-DATA:**
2026ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2026ko apirila

## Mugarria: 4

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Partaidetzaren bitartez, EAEko gazteen parte-hartzea sustatzeko eta ebaluatzeko esparru metodologiko baten diseinua egitea (tresnak, irizpideak, adierazleak...)

**HASIERA-DATA:**
2026ko maiatza

**ITXIERA-DATA:**
2026ko azaroa

## Mugarria: 5

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Partaidetzaren bidez, esparru metodologiko bat diseinatzea "Youth Test"-a Euskadiko politika publikoen diseinuan sartzeko.

**HASIERA-DATA:**
2026ko maiatza

**ITXIERA-DATA:**
2026ko azaroa

## Mugarria: 6

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Proiektu pilotuen aurretiko gaitasun-ekintzak.

**HASIERA-DATA:**
2026ko abendua

**ITXIERA-DATA:**
2026ko abendua

# Mugarria: 7

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Proiektu pilotuak garatzea "Youth Test"-a Euskadiko politika publikoen diseinuan aplikatzeko.

**HASIERA-DATA:**
2027ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2027ko abendua

# Mugarria: 8

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
"Youth Test"-a Euskadiko politika publikoen diseinuan aplikatzeko esparru metodologikoa berrikustea.

**HASIERA-DATA:**
2028ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2028ko otsaila

# Mugarria: 9

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Prestakuntza-programa bat diseinatzea garatutako ereduzko metodologiak aplikatzeko.

**HASIERA-DATA:**
2028ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2028ko otsaila

# Mugarria: 10

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Garatutako ereduzko metodologiak EAEko administrazio publikoetan zabaltzea.

**HASIERA-DATA:**
2028ko martxoa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko apirila

# Mugarria: 11

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
EAEko administrazio publikoetako teknikariei eta politikariei metodologiei buruzko prestakuntza ematea, tokiko errealitate bakoitzera egokitzeko eta horietan erabiltzeko + gazteekin lotutako eragileei prestakuntza ematea

**HASIERA-DATA:**
2028ko maiatza

**ITXIERA-DATA:**
2028ko urria

# Mugarria: 12

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Ebaluazio partaidetua.

**HASIERA-DATA:**
2028ko azaroa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko abendua

3. Konpromisoa

# Politika publikoak ebaluatzea, kontu-emateak ahalbidetzeko.

Kontuak benetan ematera bideratutako politika publikoak ebaluatzeko esparru metodologiko bat definitzea.

# Konpromisoaren izenburua

**3. Politika publikoak ebaluatzea, kontu-emateak ahalbidetzeko.**

Kontuak benetan ematera bideratutako politika publikoak ebaluatzeko esparru metodologiko bat definitzea.

# Epeak

**Konpromisoaren hasierako data:**

2025eko iraila

**Konpromisoaren amaierako data:**

2028ko abendua

# Gobernu-erakunde ezartzaileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **Eusko Jaurlaritza - Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren** | Koordinatzailea |
| **Arabako Foru Aldundia** | Parte-hartzailea + proiektu pilotuen bultzatzailea |
| **Bizkaiko Foru Aldundia** | Parte-hartzailea + proiektu pilotuen bultzatzailea |
| **Gipuzkoako Foru Aldundia** | Parte-hartzailea + proiektu pilotuen bultzatzailea |
| **Bilboko Udala** | Parte-hartzailea + proiektu pilotuen bultzatzailea |
| **Donostiako Udala** | Parte-hartzailea + proiektu pilotuen bultzatzailea |
| **Vitoria-Gasteizko Udala** | Parte-hartzailea + proiektu pilotuen bultzatzailea |

# Konpromisoaren ezarpenean inplikatutako gobernuz kanpoko eragileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **EUDEL** | Baliozkotzea eta zabaltzea |
| **Euskalit** | Expertise-a ebaluazio-arloan |
| **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)** | Administrazio publikoetarako prestakuntza |
| **Unibertsitateak** | Bestelako erakundeetarako prestakuntza |
| **Innobasque** | Expertise-a ebaluazio-arloan eta Zabalkuntza |
| **Soziologia eta Zientzia Politikoko Euskal Elkartea** | Expertise-a ebaluazioaren eta kontuak ematearen arloetan. |
| **Bilboko Emakumearen Kontseilua** | Genero-ikuspegia |

# Konpondu beharreko arazoa

Politika publikoen ebaluazioa garrantzitsua da:

- Baliabide publikoen erabileraren efizientzia eta eraginkortasuna hobetzeko ezinbesteko informazioa ematen du.
- Herritarrei kontuak emateko beharrezko oinarria da; herritarrek baliabideak hornitzen dituzte, eta, ustez, ezarritako politikak horien ongizaterako aukeratu dira.

Hala ere, ebaluazioaren kultura oraindik ez dago behar bezala instalatuta eta sistematizatuta politika publikoen kudeaketa-zikloan. Langile gutxi daude ebaluazioak diseinatzeko eta gauzatzeko behar diren trebetasun teknikoak dituztenak, eta jarraipen-sistema egokirik ez izateak datu fidagarrien gabeziak sortzen ditu. Gainera, ebaluazioak ez dira modu estrategikoan planifikatzen politiken plangintzatik, eta horrek beharrezko informazioa biltzea eta baliozko emaitzak lortzea eragozten du. Gainera, askotan, erresistentzia politikoa dago kudeaketa publikoa azterketa zorrotz baten menpe jartzeko. Horren guztiaren ondorioz, baliabide publikoak alferrik xahutu daitezke programa ez-eraginkor eta/edo kontinuistetan, eta, beraz, ikasteko eta etorkizuneko politiken formulazioa hobetzeko

# Oraingo egoera

Konpondu beharreko arazoari buruzko adostasun orokorra dago, eta hori komuna da konpromisoa sustatzen duten erakundeentzat.

Lehen azaldu bezala, ebaluazio ona izatea funtsezkoa da beharrezko kontu-emateari ekin ahal izateko. Aurreko kasuan bezala, kontuak ematearen kulturan sakondu behar da, baita haren praktika eraginkorrean ere, ebaluazioen eta hartutako konpromisoen ezarpenaren emaitzak herritarrei hurbiltzeko.

## Garatu beharreko ekintza

Konpromisoa ezartzeak Euskadin ebaluazioa eta kontuak ematea bultzatzea ahalbidetuko du.

**Azken produktu hauek (outputak) lortzea espero da:**

- Kontuak ematera bideratutako politika publikoen ebaluazioari buruzko esparru estrategiko komuna.
- Esparru estrategikoa garatzeko ereduzko metodologiak:
  · Ebaluazio-gida.
  · Kontuak emateko gida.
  · Planak, zerbitzuak, programak eta arauak ebaluatzeko protokoloa (ex-ante ebaluazioa eta ex-post metaebaluazioa).
  · Ebaluazio-enkarguak formalizatzeko protokoloa.
- Garatutako ereduzko metodologiak EAEko administrazio publikoetan eta gizarte-erakundeetan zabaltzea.
- EAEko administrazio publikoetako teknikariei eta politikariei metodologiei buruzko prestakuntza ematea, tokiko errealitate bakoitzera egokitzeko eta horietan erabiltzeko.

Lan horretan, gizarte-erakundeek parte hartuko dute, kontuak ematea xede duten herritarren ordezkari gisa.

## Nola lagunduko duen konpromisoak arazo publikoa konpontzen

- Aurreko puntuan aipatutako azken produktuak (outputs) garatuz.
- Azken produktuak eskura jarriz, aplikatu eta pertsonalizatzeko.
- Ebaluazioak eta kontu-emateak egiteaz arduratzen diren pertsonak gaituz.

## Konpromiso honekin lotzen den epe luzeko helburua, konpromiso honen xede den gobernu irekiaren ikuspegi estrategikoan identifikatua

- **Gardentasuna eta kontuak ematea GAUZATZEN DEN ESKUBIDE gisa.**

- **Ebaluazioaren eta kontuak ematearen zeharkakotasuna erakundeen antolamendu-kulturan eta kudeaketan erabat txertatuta dagoen KUDEAKETA-EREMU gisa,** kudeaketa hori modu eraginkor eta efizientean garatzeko.

## Politika-arlo nagusia

- **Ebaluazioa**
- **Gardentasuna eta kontuak ematea.**

## Sektore nagusia

**Erakundeak.**

## Ogpren zer baliotarako den garrantzitsua konpromiso hau

**Gardentasuna eta kontuak ematea.**

**Berrikuntza.**

**Lankidetza.**

# Konpromiso hau ezartzeko behar diren baliabideak

**AURREKONTUA**
Beharrezko aurrekontu-esleipena eta moneta

200.000 €

(zuzeneko gastuak bakarrik sartzen dira)

**PERTSONALA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren pertsonen kopurua

Proiektuaren garapenean lagunduko duten

8 pertsona

ingururen arduraldi partziala beharko da.

**DENBORA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren hilabeteen kopurua

38 hilabete

**BEHAR DIREN BESTELAKO BALIABIDEAK**
Mesedez, zehaztu

E/A

# Ba al daude konpromiso hori ezartzeko behar diren baliabideak?

**Bai.**

# Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak

- Garatutako gida-kopurua.
- Garatutako protokolo-kopurua.
- Metodologia diseinatzen/kontrastatzen aritzen diren gizarte zibileko erakunde/pertsona-kopurua.
- Garatutako irtenbideari dagokionez, herritarren erakundeek duten gogobetetze-maila.
- Garatutako pilotu-kopurua.
- Metodologia aurkezteko egindako ekitaldi-kopurua.
- Garatutako ikastaro-kopurua (motak).
- Ereduzko metodologien arloan prestatutako pertsona-kopurua.
- Prestakuntzarekiko gogobetetze-maila.
- Pilotuetan aplikatzean garatzen diren metodologietatik lortutako egokitzapen-maila.
- Proiektuarekin (pilotajeetan + prestakuntzan) bat egiten duten udal ertain eta txikien kopurua.

# Mugarriak

## Mugarria: 1

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Konpromiso-taldearen azken eraketa, autonomia-, foru- eta toki-administrazioek eta herritar antolatuek eta ez-antolatuek parte hartuz.

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko urria

## Mugarria: 2

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Laguntza teknikoa kontratatzea konpromisoaren garapenari euskarria emateko.

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko abendua

## Mugarria: 3

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
EAEko administrazio publikoetan egiten den ebaluazioari eta kontu-emateari buruzko diagnostikoa egitea. Beste lurralde batzuetako jardunbide egokiak identifikatzea. Beharrak eta aukerak definitzea.

**HASIERA-DATA:**
2026ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2026ko otsaila

## Mugarria: 4

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Politika publikoak ebaluatzeko esparru estrategiko komun bat egitea, kontuak ematera bideratua.

**HASIERA-DATA:**
2026ko martxoa

**ITXIERA-DATA:**
2026ko apirila

## Mugarria: 5

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Ereduzko metodologien lehen eskema egitea, esparru estrategikoa garatzeko.

**HASIERA-DATA:**
2026ko maiatza

**ITXIERA-DATA:**
2026ko uztaila

## Mugarria: 6

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Lehenengo fase pilotua garatzea, 3 mailetako hainbat erakundetan (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) proiektuak egiteko.

**HASIERA-DATA:**
2026ko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2027ko martxoa

## Mugarria: 7

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Lehen fase pilotuaren ostean, metodologiak berrikustea (Gizarte Zibilak parte hartuz) + Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeei etorkizunean estrapolatzeko aukera aztertzea.

**HASIERA-DATA:**
2027ko apirila

**ITXIERA-DATA:**
2027ko uztaila

## Mugarria: 8

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Bigarren fase pilotua garatzea, 3 mailetako hainbat erakundetan (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak).

**HASIERA-DATA:**
2027ko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2028ko otsaila

## Mugarria: 9

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Garatutako ereduzko metodologiak EAEko administrazio publikoetan zabaltzea, bai eta ebaluazioarekin eta kontu-ematearekin lotutako beste eragile batzuen artean ere.
EAEko udalei berariaz zabaltzea.

**HASIERA-DATA:**
2028ko azaroa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko abendua

## Mugarria: 10

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Garatutako ereduzko metodologiak aplikatzeko prestakuntza-programa bat diseinatzea.

**HASIERA-DATA:**
2028ko martxoa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko apirila

## Mugarria: 11

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Metodologiei buruzko prestakuntza ematea EAEko administrazio publikoetako teknikariei eta politikariei.

**HASIERA-DATA:**
2028ko maiatza

**ITXIERA-DATA:**
2028ko urria

## Mugarria: 12

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Ebaluazio partaidetua.

**HASIERA-DATA:**
2028ko azaroa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko abendua

4. Konpromisoa

# Haurrengan eta nerabeengan gobernu irekiaren kultura.

Gobernu Irekiaren printzipioak sustatzea, bereziki parte-hartzea bultzatuz, Euskadiko Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen esparruan.

# Konpromisoaren izenburua

**4. Haurrengan eta nerabeengan gobernu irekiaren kultura eta praktika sortzea.**

Gobernu Irekiaren printzipioak sustatzea, bereziki parte-hartzea bultzatuz, Euskadiko Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen esparruan.

# Epeak

**Konpromisoaren hasierako data:**

2025eko iraila

**Konpromisoaren amaierako data:**

2028ko abendua

# Gobernu-erakunde ezartzaileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **Bizkaiko Foru Aldundia** | Koordinatzailea |
| **Eusko Jaurlaritza** | Parte-hartzailea |
| **Arabako Foru Aldundia** | Parte-hartzailea |
| **Bilboko Udala** | Parte-hartzailea |
| **Vitoria-Gasteizko Udala** | Parte-hartzailea |

# Konpromisoaren ezarpenean inplikatutako gobernuz kanpoko eragileak

| Erakundea | Ezarpen-rola |
|---|---|
| **UNICEF Euskadi** | Koliderra eta haurtzaroroko politiketan aditua |
| **EGK - Euskadiko Gazteriaren Kontseilua** | Parte-hartzailea |
| **Sareen Sarea** | Parte-hartzailea |
| **Osoigo** | Parte-hartzailea |

# Konpondu beharreko arazoa

Gobernu Irekia EAEko administrazio publikoek hartutako gobernantza-modu bat da, eta gardentasuna, lankidetza, herritarrek gai publikoetan parte-hartze handiagoa izatea, etika eta kontuak ematea ditu ardatz.

Nahiz eta gardentasuna eta herritarren eta gizartearen parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko bide, eta plan publiko ugari dauden, kasu gehienetan helduei zuzentzen zaizkie. Une honetan, administrazio publikoek, baita Gobernu Irekiaren eta parte-hartzearen eremuan ere, gizarteko gazteenetan jarri behar dugu arreta (1989an Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak eskubide osoko subjektu gisa aitortu zituen haurrak eta nerabeak, eta haurren eta nerabeen parte-hartzea oinarrizko eskubide gisa, hezkuntzarekin, osasunarekin edo nortasunarekin parekatuz).

2024ko otsailean, Eusko Legebiltzarrak 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeei buruzkoa, onartu zuen. Lege horrek zenbait betebehar ezartzen ditu haurren eta nerabeen informazioari eta parte-hartzeari dagokienez, eta horiei erantzun behar zaizkio. Gainera, maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak, Euskal Sektore Publikoari buruzkoak, 19. artikuluan aitortzen du herritarrek eta elkarteek parte hartzeko espazio egonkorrak ezarri behar direla.

Haurren eta nerabeen artean Gobernu Irekiaren printzipioak bultzatuz, erakunde demokratikoek nola funtzionatzen duten erakusten ari gara, eta beren komunitateetan aldaketa-eragile bihur daitezen ahalduntzen ari gara, halaber, herritarren konpromisoa eta erantzukizuna ere bultzatzen ari gara. Herritarrak arduratsuagoak eta konprometituagoak izan daitezen laguntzen ari gara.

# Oraingo egoera

Konpondu beharreko arazoari buruzko adostasun orokorra dago, eta hori komuna da konpromisoa sustatzen duten erakundeentzat.

Zehazki, Haurren eta Nerabeen Legean ezarritakoa jorratzeko beharra identifikatzen da, kasu honetan parte-hartzeari eta informazioari dagokienez (Gobernu Irekia), bai eta administrazio publikoek haurren eta nerabeen parte-hartzea bultzatzeko beharra ere, Eusko Jaurlaritzaren HaurEkin sareak dagoeneko egindako lana kontuan hartuta eta harekin koordinatuta.

# Garatu beharreko ekintza

Konpromiso hori ezartzeak honakoak dakartza berekin: kultura demokratikoa, herritarren erantzukizuna eta erakundeak gazteengana hurbiltzea bultzatzea, eta, aldi berean, Haurtzaroari eta Nerabezaroari buruzko Legea bideratzea Gobernu Irekiaren eremutik, eta haurrek eta nerabeek parte hartzeko kanalen artikulazioa sustatzea, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa betez.

**Azken produktu hauek (outputak) lortzea espero da:**

- Haurrengan eta nerabeengan Gobernu Irekiko kultura eta praktika sortzeko materiala.
- Haurren eta Nerabeen Euskal Foroa diseinatzea, haurrek eta nerabeek baliozkotuta. Definitutako eredua tokiko foroetara egokitzea.
- Haur eta Nerabeen Barometro baten edukia definitzea eta abian jartzea, Haur eta Nerabeei buruzko Informazioko Euskal Sistemari beharrezko informazioa eta ezagutza emateko eta haurrek eta nerabeek gai sozial eta politikoei buruz dituzten kezkak, ezinegonak eta iritziak zuzenean ezagutzeko. Barometroak haurren eta nerabeen ongizate emozionalari eta bizi-gogobetetasunari buruzko datuak emango ditu, eta hori funtsezkoa da esku-hartzea eta laguntza behar duten arloak identifikatzeko. Barometroaren emaitzek, gainera, politika publikoen sorrera eta hobekuntza gidatzea ahalbidetuko dute, eta politika horiek gazteenen ahotsei dagokienez inklusiboagoak eta adierazgarriagoak direla ziurtatuko dute.
- Haurrek eta nerabeek modu digitalean berme eta babes guztiekin parte hartzea ahalbidetuko duen autentifikazio-sistema bat definitzea.

Haurrek eta nerabeek parte hartuko dute konpromisoaren mugarri guztien garapenean.

# Nola lagunduko duen konpromisoak arazo publikoa konpontzen

- Aurreko puntuan aipatutako azken produktuak (outputs) garatuz.
- Azken produktuak eskura jarriz, aplikatu eta pertsonalizatzeko.
- Haurren eta nerabeen partaidetza bultzatzeaz arduratzen diren pertsonak gaituz.

## Konpromiso honekin lotzen den epe luzeko helburua, konpromiso honen xede den gobernu irekiaren ikuspegi estrategikoan identifikatua

- **Haurren eta nerabeen parte-hartzea GAUZATZEN DEN ESKUBIDE gisa.**
- **Haurren eta nerabeen ikuspegiaren zeharkakotasuna administrazio publikoen BEHAR ESTRATEGIKO gisa.**
- **Haurren eta nerabeen ikuspegiaren zeharkakotasuna erakundeen antolamendu-kulturan eta kudeaketan erabat txertatuta dagoen KUDEAKETA-EREMU gisa,** kudeaketa hori modu eraginkor eta efizientean garatzeko.

## Politika-arlo nagusia

- **Partaidetza.**
- **Haurtzaroko politikak.**

## Sektore nagusia

**Erakundeak.**

## Valores de OGP frente a los que es relevante este compromiso

**Partaidetza.**

**Kolektibo zaurgarrien babesa.**

**Berrikuntza.**

**Lankidetza.**

# Konpromiso hau ezartzeko behar diren baliabideak

**AURREKONTUA**
Beharrezko aurrekontu-esleipena eta moneta

150.000 €

(zuzeneko gastuak bakarrik sartzen dira)

**PERTSONALA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren pertsonen kopurua

Proiektuaren garapenean lagunduko duten

10 pertsona

inguruen arduraldi partziala beharko da.

**DENBORA**
Konpromisoa ezartzeko behar diren hilabeteen kopurua

38 hilabete

**BEHAR DIREN BESTELAKO BALIABIDEAK**
Mesedez, zehaztu

E/A

# Ba al daude konpromiso hori ezartzeko behar diren baliabideak?

**Bai.**

# Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak

- Egokitutako/sortutako material-kopurua.
- Materialak baliozkotzean parte hartutako haur- eta nerabe-kopurua.
- Euskadiko Haur eta Nerabeen Barometroaren galdera-kopurua
- Barometroa irakurketa errazera egokitzea: bai/ez
- Euskadiko Haur eta Nerabeen 1. Barometroaren deskarga-kopurua.
- Haurren eta nerabeen balorazioak (Foroaren ereduari buruz).
- Haurren eta nerabeen balorazioak (Barometroari buruz).
- Garatutako ikastaro-kopurua (motak).
- Prestatutako pertsona-kopurua.
- Prestakuntzarekiko gogobetetze-maila.
- Haurrei eta nerabeei buruzko tokiko foroak garatzen dituzten edo garatzen hasten diren udalerrien kopurua

# Mugarriak

## Mugarria: 1

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Konpromiso-taldearen azken eraketa, autonomia-, foru- eta toki-administrazioek eta herritar antolatuek eta ez-antolatuek parte hartuz.

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko urria

## Mugarria: 2

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Laguntza teknikoa kontratatzea konpromisoaren garapenari euskarria emateko.

**HASIERA-DATA:**
2025eko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2025eko abendua

## Mugarria: 3

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legearen azterketa, Gobernu Irekiaren ikuspegitik, lege hori benetan betetzeko egin beharreko jarduerak eta jarraitu beharreko ibilbide-orria identifikatzeko.

**HASIERA-DATA:**
2025eko urria

**ITXIERA-DATA:**
2025eko abendua

## Mugarria: 4

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Haur eta nerabeei egokitu ahal zaizkien Gobernu Irekiaren printzipioei buruzko materialak eta baliabide didaktikoak identifikatzea, bai eta ildo horretan haurrek eta nerabeek, administrazio publikoek eta haur eta nerabeekin lan egiten duten beste eragile batzuek izan ditzaketen beharrak eta eskaerak ere.

**HASIERA-DATA:**
2026ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2026ko martxoa

## Mugarria: 5

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Haurrengan eta nerabeengan Gobernu Irekiaren kultura eta praktika sortzeko materialak egokitzea eta/edo lantzea. Horiek zabaltzea.

**HASIERA-DATA:**
2026ko apirila

**ITXIERA-DATA:**
2026ko uztaila

## Mugarria: 6

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Haur eta Nerabeen Euskal Foroa diseinatzeko, konfiguratzeko eta funzionatzeko proposamena egitea, haurrek eta nerabeek baliozkotuta.

**HASIERA-DATA:**
2026ko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2026ko abendua

# Mugarria: 7

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Haur eta Nerabeen Barometro baten edukia definitzea eta abian jartzea, Haur eta Nerabeei buruzko Informazioko Euskal Sistemari beharrezko informazioa eta ezagutza emateko eta haurrek eta nerabeek gai sozial eta politikoei buruz dituzten kezkak eta iritziak zuzenean ezagutzeko.

**HASIERA-DATA:**
2026ko iraila

**ITXIERA-DATA:**
2026ko abendua

# Mugarria: 8

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Haurrek eta nerabeek modu digitalean berme eta babes guztiekin parte hartzea ahalbidetuko duen autentifikazio-sistema bat definitzea.

**HASIERA-DATA:**
2027ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2027ko martxoa

# Mugarria: 9

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Euskadiko Haur eta Nerabeen 1. Barometroa egitea.

**HASIERA-DATA:**
2027ko apirila

**ITXIERA-DATA:**
2027ko iraila

# Mugarria: 10

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Tokiko eragileei eta eragile sozialei jakinaraztea 1. Barometroaren emaitzak eta proiektua garatzean lortutako emaitzak.

**HASIERA-DATA:**
2027ko urria

**ITXIERA-DATA:**
2027ko azaroa

# Mugarria: 11

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Prestakuntza-programa bat diseinatzea garatutako ereduzko metodologiak aplikatzeko.

**HASIERA-DATA:**
2027ko urria

**ITXIERA-DATA:**
2027ko abendua

# Mugarria: 12

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
EAEko administrazio publikoetako teknikariei eta politikariei metodologiei buruzko informazioa ematea.

**HASIERA-DATA:**
2028ko urtarrila

**ITXIERA-DATA:**
2028ko abendua

# Mugarria: 13

**ZER LORTZEN DEN:**
**PRODUKTUA EDO ZERBITZUA**
Ebaluazio partaidetua.

**HASIERA-DATA:**
2028ko azaroa

**ITXIERA-DATA:**
2028ko abendua

III. zatia

# Aurrekontua

# Aurrekontua

Jarraian, proiektuaren aurrekontu zenbatetsi bat dago. Bertan zuzeneko gastuak bakarrik hartzen dira kontuan, eta ez dira sartzen egiturazko jarduerei egotz dakizkiekeen gastuak, hala nola Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen bidezko prestakuntza-jarduerak.

Aurrekontuan dagokion BEZa sartzen da.

| Kontzeptua | Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua | Beste erakunde batzuen aurrekontua | GUZTIZKOA |
|---|---|---|---|
| Berariazko laguntza teknikoa<br>1. konpromisoa garatzeko<br>**HERRITARREN ARAU-ARLOKO EKIMENA GAUZATZEA** | 60.000 € | 0 € | **60.000 €** |
| Berariazko laguntza teknikoa<br>2. konpromisoa garatzeko<br>**ETORKIZUNA DISEINATZEN AKTIBOKI PARTE HARTZEN DUEN GAZTERIA** | 75.000 € | 20.000 € | **75.000 €** |
| Berariazko laguntza teknikoa<br>3. konpromisoa garatzeko<br>**POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA KONTU-EMATEAK AHALBIDETZEKO** | 150.000 € | 50.000 € | **200.000 €** |
| Berariazko laguntza teknikoa<br>4. konpromisoa garatzeko<br>**HAURRENGAN ETA NERABEENGAN GOBERNU IREKIAREN KULTURA ETA PRAKTIKA SORTZEA** | 0 € | 150.000 € | **150.000 €** |
| Proiektuaren jarraipen orokorra | 45.000 € | 0 € | **45.000 €** |
| Proiektuaren azken ebaluazioa | 20.000 € | 0 € | **20.000 €** |
| **GUZTIZKOA** | 350.000 € | 220.000 € | **570.000 €** |